

## **Izena emateko epea irekita hiru master ofizialetan**

2011/05/27

Izen ematea web bidez egiten da, orri honetan. Bertan izena ematen duenari eskatuko zaio nortasun txartelaren kopia digital bat igotzea.

### **Ekomu**

Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleanizetan Master ofiziala, Ekomu, aurreko ikasturtean abiatu zen. Master honek prestatu nahi ditu profesionalak, gai izan daitezen kudeatzeko hezkuntza esparru asko, aurrez ikusteko ikasleen hezkuntza premiak, antzemateko ikerkuntza arazoak eta egokitzeko gizarte aldakorrean.



Masterra %100 on line irakatsiko da, Moodle plataformaren bidez. Sarean eta taldean, nahi den unean. Arazoen ebazpenean eta kasu azterketan oinarritua, praktikak eta proiektu baten garapena dira ardatz. Masterra urte batean, bi urtean edota hirutan egin daiteke. Materia solteak ere egin daitezke. Eta horretarako, MUK goi mailako irakasle talde bat bildu du.

### **Berrimet**

Bigarren master ofiziala, Berrikuntza Didaktiko-Metodologikoko Proiektuen Garapena eta Kudeaketa Hezkuntza Erakundeetan, Berrimet, aurten hasi da, urtarrilean. Master honen helburua da berrikuntza didaktiko-metodologikoari zuzendutako proiektuak sortu eta kudeatzea, heziketa-ingurunean dauden premia eta aukeren inguruan gogoeta eginez, estrategia berriak eta interbentzio-baliabideak kontzeptualizatuz, proposamen berritzaileak gauzatzeko ekintzak bideratuz eta emaitzak ebaluatuz. Master hau ere %100 on line emango da.

Masterra zuzenduta dago Hezkuntzan diharduten profesionalei. Ikasleak aukeratutako ibilbidearen arabera, profil honetaz gain, Doktorego programara sarbide ematen duen ikerketa-ibilbide espezifikoa egin ahal izango du. Hizkuntzari dagokionez, masterra bai euskaraz eta bai gaztelaniaz emango da. Ikasleak aukera izango du hizkuntza hautatzeko bere hizkuntza-profil eta aukeraren arabera.

### **Unibertsitate-master ofiziala irakasle gisa aritzeko**

Master honen helburu nagusia da prestatzea bihar-etziko irakasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen ikasketetan, irakasle bezala beharko dituzten ezagutza eta gaitasunetan, ahalik eta modu eraginkorrenean bete ditzaten beraien bizitza profesionallean izango dituzten funtzioak. Master hau presentziala izango da.

Nahi duenak informazio xeheagoa masterraren inguruan, webgunera jo dezake. Edo bestela, ondorengo helbide elektronikora idatzi:  
**idazkaritza\_akademikoa@mondragon.edu**